

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

246n. zenbakia
abendua 1999



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**ANDRA MARIAREN JASOKUNDEA
KOROIA AINGERUEN ESKUETAN
DALA IRUDI-LAN IKUSGARRIA**

JUAN DE ANTXIETAK EGINA DALA ESATEN DABE

BAKIO

ERDERA DALA-TA (I)

Erdera
Euskal-gogoarentzat

Gudalari, ertzaineta txapel-oke ak
Euskal-gorputzarentzat

(Emen, " erdera " itzaren bidez, españera ta parantzera adierazi nai ditugu, bereziki)

Asteko jartzen dugun berdintasun o en asmoa, ausaz, onela ipiñi dezakegu obeto: Euskal-gorputzarentzat, gudalari, ertzain eta txapel-oke ak dirana, orixe bera da Euskal-gogoarentzat erdera.

Eta geyago, noski, areago goazen berdintasun ortan agertzen diran bi zatietan, egiz, zer dagoen ikustera, gure bayetzari eusteko xedeaz. Asi gaitezana biga enaz.

Guda bero izuga ia egin ziguten, orain ogetamabost urte dirala, España'ko gudalariak, ertzain, txapel-okef eta besteak lagunduta, jakiña. Milaka ilak orduan, aleun espetxeetan zigortuak, nun-nai ebasketak, edo nun irain eta ezesprenak. E i bat zigorturik izan bada, o a gurea, orduan eta ordudanik ona ere. Guda irabazi ziguten gure arerioek, baña etzan izan garaipen ura berentzat naikoa, ta afezkero aferazi diguten bizian barna, espetxeratze, makilkatu ta erbesteratuak, eunka ta eunka urtean bidean; bereziki gaurko gaztediak ere bereak eta bost jasan bea ditu sa i. Espetxeratuai beren epaikundeak egiten dizkiete, ta gauza txikienagatik espetxeko urte ta urteak jartzen dizkiete, zigofez, iltzeko zorian uzten ez dituztenean. Len gure belaualdikoak izan giñan zigorkaturik, orain oraingoan, eta guziok ere. Len eta orain gure E ia da guzia jasan bea duena, bera bai ta bein-betiko suntzitu nai dana. Ta kontuz iñork ezer egin ez dezan, zema ta ankerkeri izuga iak dagoz guzion gain ja ita.

Eta gudalari, ertzain eta txapel-okefek, alka en leyan, euskal-gorputza loturik daukate ertsiki, edozer gauza zigorkatzeko gerturik oso. Gure E i 'aren aurkako erakunde aundi ta izuga ia antolatu dute beren xedea burutzeko, ta gero ta aundiago ta bildurgafiago egiten ari dira beren erakunde ori; ba-dirudi eziña dala zera ortan geyagorik egitea, euskaldun guziok erailtzea ezpada, ta amaikatxo dagoz orixe ain zuzen egin naitzango luketenak.

Baña, zema, zigo eta ikara-erakunde guzia ere, ez dira aski euskal-gogoraño eltzeko; alka en ondolik, abertzaleak ugari abe iaren alde ekiteko, eten gabe sortzen zaizkigu, gure euskal-gorputzean egindako zuloe-tara, utzak betetzeko gogoaz; gure euskal-gogoa bizi

aundikoa dugu ta bera da Efi'ari eusten diona. Ez, indarkeri, ankerkeri ta ikara-erakunde guziak, ez dira ezer euskal-gogoari kalterik egiteko.

Baña, ots, ba-dute gure arerioak ortarako oso egoki ta bereziena dan beste bide bat, beren erderaren bidea; ta mutilak dira bide ori ere ongienik ustiatzeko. O ela, gurean dagoen biziera guzirako erdera ori erabiltzeko guztiz bearturik gagoz; euskerarik ez, iñola ere ez, ortarako. Eskoletan asten dira erderazko lan ortan; gure abe ian zabaldu dizkiguten eskola guzietan eztago euskera sartzetik, orobat irakaskintza guzian ere. Ume txikia eskola oietako batera joan diteke erderaz tutik jakin gabe; berdin zaio irakasleari, ta lenengo egunetik erdera baka ik erabiliko du au o ekin ere. Ez da esan bea o elako aufai, eskoletan jasan bea -izan duten guzia nolako izan zaien mingafi. Eta eskolatik ateratzen diranean bietatik bat: batzuek, inda ez eta nekez, zerbait ikastea lortu dute, baña oietatik geyenek, irakasleak buruan sartu dielako, beren neke guzien efua euskararena dala uste dute, ta au eruntz beren gurasoen izkuntzarekiko muke biurtzen dira edo go otodun bearbada; ta, berena etzan izkuntzaren bidez irakasi dietelako, ezer ez edo oso gitxi ikasi dutenak geiago ikasteko gogorik gabe geratzen dira bizi guztirako.

URRESTARAZU (+)
UMANDI 1961

=x= =x= =x=

BAKEA: NON GAGOZ? NORA GOAZ?

Euskalerrian buruz aspaldiko eundak urteetan diran gora-bera guztien sustraia, barruan beti agertzen dan arazo, errien eskubideen arlokoa da. Ez da arrazo politiko, ori politika guztiak baiño lenago, aurrerago, dago. Arazo ori bideratzen danean. orduan asiko da politikearen jokia.

Erri bat gara, iparraldeko euskaldunak eta egoaldekoak eta gure artera bertan bizi izateko etorri diranak, erri bat osotzen dogu eta gure inguruan daukaguzan beste erriak aintzat artu bear gaitue. Ori bear-bearreko gauzea da, orri laterri-arteke eskubideen arloan kontuan artu-bearrekoa da.

Aintzat artze ori gaur zertan dago? NON GAGOZ?

Erriak, erri lez, orain arte ez dau izan berba egiteko, bere eritxia agertzeko, aukerarik. Orregaitik, zerbait susmatzeko, alderdi politikuetara begiratzea baiño beste biderik ez daukagu.

Abertzaleak ez diranak, ostera, arazoa oso illun dauke. PP'k eta PSOE'k bide ori ez dabe ikusi nai, IU/EB be erdibide baten agertzen jaku.

Egoerea orrelan dala, NORA GOAZ?

Urtenbidea ez da erreza, gure erriaren nortasuna ta eskubideak kontuan artzea oso gatxa dalako España'n eta France'n diran alderdietan eta agintaritzan.

Iparraldeko euskaldunak "departamentu" batera sartzea eskatzen da an, eta bide orretatik aurrera doazela dirudi. Ori urrats bat litzake. Ona. Baiña ortik "zazpiak bat" onartzera beste urrats aundiago bat emon bearke litzake. Gero erri alkartu edo batu ori onartzea letorke.

Orrantza goaz euskaldunok eta bide orretatik aurrera egiten ez ba'da, edo ez da lortuko bakerik edo "bake txarra" egingo da. Zauriak odoletan geratuko dira, burrukeak aurrera jarraituko dau, era batera edo bestera.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!**

Abertzaleak diran alderdiak argi ikusten dabe ori: EAJ, EA, eta EH bide orretan dagoz, naizta, antza dagoanez, bidea argi goz ikusi EAJ'ren barruan Arzalluz'ek eta Egibar'ek, beste era batera berba egiten dabe J.M. Atutxa'k eta Ardantzak, baiña badaukagu itxaropena aurrera egiteko alkartuko dirala.

ETA'k su-etena sendotzat emon arren, urteak joan, urteak etorri, beste burrukalari batzuk agertuko dira.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

ALBISTEAK BAKION

ERRIGINTZAN BAKION

Erri nortasuna jagotekotan, erriko izkuntzea edo berbeta _lagotea askok uste leiken baino leba andiagokoa da. Gurea dan lako errian, oraindikarren andiagokoa. Egon be, gure errian, bertoko berbeta sano baztertuta dago erriko bizitza sozialean. Arlo batzuetan aldeko aalegin andiak egin arren be.

Goiko bazterkeria amaituteko sasoia eldu jaku. Zaar eta gazteen artean berbetaeren katea apurtu bada be, geure eskuetan, zeuen eskuetan dago ori konpontzea. Zaarrek, zeuen berbeta irakatsi gazteei.

Gazteek, zaarren berbeta ikasi eta erabili. Betiko euskereak daukaz izkuntzearen grazia, kalitatea eta dotoretasuna.

Bakion euskerearen katea apurtu bada, dalako "izkuntza transmisinoa" moztu egin dalako izan da. Argi dago, euskerearen osasuna Bakion obetu egin bear dogu.

Ori eskoleak edo ETBk ez deuskue konponduko.

Ori familietan eta lagunartean konpondu leiteke baka-rik. Gu geu aaleginduten bagara, jakina.

EROSTEA SANO KARU BAKION

Turismoak jota dagoan edozein erritan jazoten dan lez, Bakion be eguneroko jakiak eta edariak erosteko salneurriak karu be karu dagoz, udan batez be.

Bizkaiako itsasaldeko erririk karuenetarikoa bat ei da gurea. Batez beste, aurtongo udan %9,18 karutu dira oinarriko erosgaiak bertan. Gorkiz, barriz, % 16,6 karuagoa da, erririk karuena bera izanda.

Udatiarren etorrerea dala-eta, saltzaileek udako iru ila-beteetan urte osoko irabaziak egiten aaleginduten dira, negu luzean ia inor erosten ez ei jakelako joaten.

Bilbon, esate baterako, bertan baiño %28 merkago dagoz eguneroko jakiok. Kontsumitzaileen Alkartekoen esanetan, eurek ezin dabe orren aurka gauza andirik egin, aurki.

Baina, orren guztiorren ondorioak errian urte osoan bizi diranek eroaten dabez.

Askotan, udako salneurri igokerak urte osoan ordaindu bear izaten dabez eta. Amen bada erririk karuena zerrenda interesgarri au:

—GORKIZ	+%16,60
—BAKIO	+%9,18
—GAMINIZ (PLENTZIA)	+%9,00

— LEKEITIO	+%2,00
— BILBO	-%28,00

BAKIO TROPIKALA?

Alikanteko Elchetik ekarrirako sei palmondotzarrak ordagoz, zutun-zutunduta zerura begira, ibiltoki eta aretzearen aurrean.

5 metroko palmondook 50 urtekoak ei dira eta sano sendoak azita dagoz.

Batzuetan an joten dauan itsas-aize gogorrari eutsiteko bestekoak dira, aurki.

Euren betebarra aize gogorra apur bat moteldu edo lotutea izango ei da.

Jakin dogunetik, udalak ez dauz palmondoak ordaindu, orretarako dirua ibiltokiaren aurrekontutik atara dabela.

Ez dago zalantzarik, palmondook Enderika ondoko ingurua dotore jantzi dabena, areri alango tropikoko ukutua emonaz.

BIZKORTUTEKO ASMOA

Bakioko turismo eta merkataritza arloak bizkortuteko egitasmoari ekingo jako laster.

Urte guztian 1.500 lagun bizi dira Bakion, udan, barriz, 12.000tik gora. Sasoi orreetan egoten diran bizilagun kopuruaren arteko aldea sano andia da.

Ori dala-eta, sortuten diran arazoak gitxituteko neurriak artu gura dabez. Bakiok daukazan bitarteko ekonomikoak, turistikoak, naturalak zein kulturalak aztertuko dira.

Gero, azterketa orrek erakutsiko dauazan ondorioetan oinarrituta, datozen urteetako elburuak eta erri jokabidea erabagiko dabez.

Orretarako bearrezkoak diran jakingarriak batuteko bakiotarren, udatiarren zein bilbotarren artean ibiliko dira itaunka, eritxiak entzuteko edo.



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

BAKIOKO ABESBATZA

Oporraldia igarota eta irailean urteroko txangoa egin ostean, abestaldi barriari asikera egin deutsoe abesbatza-koek.

Orretarako, urriaren 31 an egingo dan Euskerearen Jaian abestuko daben ekitaldia prestetan dabilz.

Zemendian, urtero lez, Zezili Deunaren jaitxua egingo dabe. Geroago baten, abenduaren 4an edo, Urdializera (Kastro) joango dira, an abesteko asmotan.

Urdializko abesbatzea, ostera, beluagoko baten etorriko da Bakiora abestuten.

Beste alde batetik, Gabonetan oiko kontzertua ospatuko deuskue ume abeslariakaz batera.

Inork abesbatzeko gura izango baleu izan, eurakana joatea baino ez leuke, abeslariak bear dabez eta.

ITXAS-ALDERI BURUZ

Joandako ilaren 26an Larrauriko jaietan egin eben dantza ekitaldia, urtero lez.

Urriaren 30ean Busturialdeko Dantzari Nagusien Jaian be badabe dantzan egitekoa, Mundakan euki be.

Aaztu barik, Bakion, Euskerearen Egunean be or izango dirana.

Barriro be asi dabez ensaioak, baita alkartrukeak preste-tan be.

Urtero lez, gonbideta zagoze, gura dozuen guztiok, ITXAS-ALDE taldera etortera, dantzari edo musikari moduan esku artuteko.

UDALEKU IDIGIA

Aurten be, irugarrenez, Udaleku Idigia antolatu dau Kultur Etxeak Bakion.

Garagarrilaren 19tik 30era, 23 ume eta begirale bi batu dira egunero olgetak, eskulanak, kirolak eta beste ainbat ekintzari aurre egitekotan.

Euretariko bik. Mikel Ugalde'k eta Iraitz Ugalde'k, itaun batzuei erantzun deuskue:

ZER: Zelan ibili zaree aurtengo udalekuan?

Mikel: Ondo eta pozik.

Iraitz: Oso ondo ibili naz eta gustatu egin jat.

ZER: Zein da egin dozuen gauzarik dibertigarriena?

Mikel: Rokrodomoa eta "bonbea" izeneko jokoa.

Iraitz: Olgetak: alarmaka, alturitaka, armiarmaka, toki bietaka... eta peloteaz olgatutakoak.

ZER: Eta zelan konpondu zaree beste umeekaz?

Mikel eta Iraitz: Ondo. Lagun barriak egin doguz.

ZER: Datorren urtean etorteko asmorik?

Mikel eta Iraitz: Bai.

ARDAOARI BURUZKO IKASTAROA

Garagarrillaren 26tik 29ra bitartean Bakioko Kultur

Etxeak eratutako "Ardoari Buruzko Ikastaroa" euki genduan Bakion.

Bertan, lau, arrastitan, ardaoari lotutako eduki interesgarriak aiatu eta eurretan sakondu eben: txastatze teknikea, ardaoak lortuteko eginbideak eta ardao ezbardinetako ezau-garriak (zuriak, gorriak, baltzak, bitsdunak,...).

Egun bakotxean, teoriak gan, praktikea be landu eben, au da, txastatzea.

Enologo eta sumillerra dan Mikel Garaizabal izan genduan irakasle zereginetan.

UDAKO ERAKUSKETAK

Uda onetan, amaiatxu artisten lanak ikusi aal izango doguz, Kultur Etzeko erakustaretoan: Nati Alonso, Rosa Marina, Ruslan Galazov, Luis Boán, Ramón Barreriro, Janire Calleja eta Migel Garairenak, ain zuzen be.

LIBURUTEGIAREN TXOKOA

Bakioko liburutegia, andi-andia ez izan arren be, edonori zabalik dago, an dagoan literatura eskaintzea opatzeko. Bertan euskeraz idatzitako ainbat liburu dagoz. Amen, bada, oraingorako aukeratuak:

NGUNGAREN ABENTURAK, Artur Pestana "Pepetela"

Burrakalari txiki onen abendurak Angolan jazoten dira. Egileak amaieran dinoanez, injuztizia guztiakaz amaitu gura dauan gerrilaria da Ngunga. Bearbada, gure bar'uko tokiren baten gordeko dogu Ngunga txikiren bat. Ganera, Angolako berba batzuk ikasteko aukerea izango dogu.

GURE BARRIOA 1975, Xabier Mendiguren

Mendigurenek amar urte ebazalako sasoia gogoratu dau eta erri industrial bateko auzuneko mutikoen mundua ^{birregei} dau, bere txiroan ederra, bere arruntean fantasiaz bete. Dana dala, umezaroaren idealizazino guztietatik asago dabil egilea: samurrak besteko ankerrak dira umeen jolasak, goxoak besteko errukibakoak areen misterio eta amesak.

BIDAIA SENTIMENTALA FRANTZIA ETA ITALIAN ZEHAR, Laurence Sterne

Egileak 1765ean Frantzia eta Italiarako bideari ekin eutson. Liburua orren frutua da. Emen irakurleak ez dau aurkituko eraikuntza ospetsuen deskripzinorik, protagonistak beraren bidean topetan dauan jendearen izakera eta barru zirrarak arakatzen dabezan begirada barrukoiaik baino.

BAKIOKO EUSKEREAA-7

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun!

Oarra: Era bitara dakarguz, esaterako,

ALBISTEAK

- zelan idatzi bear dan: "egia da, artu dozuna"
- Bakion zelan esaten dan: "(egidxe da, artu'sune)"

-NA (osogarrizkoa)

Bizkaierazko jostekarearen atzizkia dogu. Bakioko euskeran bizi-bizirik dogun atzizkia da. Bertoko euskaldunek sarri, ondo eta zeatz erabilten dabe. Erriak, bada, balio sozial andia eta garrantzitsua emoten deutso -NA atzizkiaz.

Zoritzarrez, gaurko gazte-umeen artean ia guztiz galdu-ta dago, orren orde -LA egiten dabela.

Menpeko esaldi osogarrietan erabilten dogu, adierazotakoa ziurra edo jakina dala esateko.

Baieztapenak adierazoteko (EZIN UKATU, ARGI DAGO,...) zein egitasun eta autorpenak egiteko (EGIA DA. IKUSTEN DOT, BADAKIT,...). Lantzean beinean be, jakiten dana beste berbaren batez indartuten dogu (DANOK DAKIGU, ONDO DAKIZU,...). Erabilera ori ondo ulertu eta egiteko berbadunaren ikuspegiaren joko garrantzitsua konturatu bear dogu.

Aren eskuetan dago-eta ebaztea ziurtasun edo jakintasun mailea zenbateraginokoa izango dan, eta, alan bada, atzizki ori erabiliko dauan ala ez.

Atzizki ori, beste batzuen artean, urrengo aditzakak erabilten da:

AGIRIAN EGON - EZ AAZTU - ARGI EGON - AUTORTU - BISTAN EGON - DUDARIK EZ EGON - EGIA IZAN - GARBI EGON - GOGORATU - GUZURRA IZAN - IGARRI - JAKIN - KONTURATU - LASTIMEA IZAN - SEGURU EGON - SINISTU - UKATU ...

—Gauza agiria da, diru asko galdu ebaNA.

(geuse agiridxe da, diru asko galdu seuenta)

— Ez da aaztu bear, ori alantxe esan dabeNA.

(esta astu bier, ori alantxe esan deuriena)

—Argi dago txarto dagoaNA, ikusi besterik ez dago eta.

(argi dau txarto dauena, ikusi besterik estau te)

—Guzurretan ibili gurago, okerkerietan dabilzaNA

autortu baino.

(gusurretan ibilli gurau, okerkeridxetan dabisena autor-tu baño)

—Bistan dago ez nekiaNA, agozabalik lotu nintzan eta.

(bisten dau enekidxena, agosabalik lotu nitzen da)

—Dударик ez dago, joan egin ziraNA.

(dudarik estau, dxoan eiñ sirena)

—Egia da, atzo zarata egiten ibili zaNA.

(egidxe da, atzo sarata eitxen ibil sana).

—Jatunak garaNA, argi ta garbi dago.

(dxatunek garana, argi txe garbi dau)

—Ez dozu gogoratuten sasoiz joan zaNA, ala?

(estosu gogoratuten sasoian dxoan sana, ala?)

—Guzurra da, alkatea an egon zaNA.

(gusurre da, alkatie an on sana).

—Ikusi dodaneko, igarri deustot aitaren anterea dauka-

NA.

(ikusi doteneko, igerri'tzet aitxen anterie dekona)

— Arek ondo daki, batetik bestera zabilzaNA.

(arek ondo daki, batetik beste sabisena).

—Konturatuko dira, aurton zereginik ez daukeNA.

(konturako dires, aurton seregiñik estekiena).

— Lastimea gaztetxu zaraNA, zeure buruari alantxe kalte egiteko.

(lastimie gastetxu sarana, seure buruari alantxe kalte eitzeke)

—Seguru nago, ez daNA oraindinokarren etorri.

(seguru nau, estana ondiñokarren etorri).

— Sinisten dot, ori egiteko gauza ez zaraNA.

(siñistan dot, ori eitzeke gause esarana).

— Ezin leiteke ukatu, aitaren semea daNA.

(esin lei ukatu, aitxen semie dana).

Badagoz beste batzuk be -NA atzizkia eskatuten dabenak: ASKO EZ DA - ASTE BETE DA - BADIRA BOST URTE - BAI! - BENETAN! - BIDER - ESKERRAK - ORI(XE) ! - JAKIÑA ! - URTEAK DIRA ...

— Asko ez da, ori berberori esan ebaNA

(asko esta, ori berberori esan seuenta)

— Aste bete da, etxetik kanpo bizi daNA

(aste bete da, etzetik kanpo bisi dana)

—Badira bost urte, ikasten amaitu nebaNA

(badires bost urte, ikisten amaitxu neuena)

—Benetan, barrabaskeria egin eustaNA!

(benetan, barrabaskeridxe eiñ ostena!)

—Leenengo bider da, ori egin ebaNA

(lelango bider de, ori eiñ seuenta)

—Eskerrak bizkor etorri zareeNA, osterantzean...

(eskerrak biskor etor sariena, ostantzien...)

Etorriko zara? - Orixe, joango nazaNA!

(-etorko sara? - orixe, dxoango nasana!)

—Jakina, biar egingo doguNA!

(dxakiñe, bidxer eingo dune!)

—Urteak dira, emetik ez zaraNA agiri.

(urtiek dires, emetik esarana agiri).

INIAKI MARTIARTU

1999ko irailean

GIZONAREN EGOERAK

Astoa, txakurra ta tximiñoren egoerak.

Izadia egin ondoren, zertzelada batzuk amaitzeko eukazan Jainkoak, euren artean abereen adiñak. Astoari berrogei urte biziko zala esan eutson. Txakurrari beste berrogei bat urte. Tximiñoari be bardin berrogei urte. Eta gizonari ogeta amar urte.

Gizonak aurka egin eban: "Ez dago ondo neu izadiaren erregea izan eta abere oneik baiño bizia laburragoia izatea. Bestalde urte batzuk bear dodazela ezagueran sartzeko kontuan euki bear da ta beste urte batzuk bearrezkoak dira gauzak ikasteko; dana dala ogetaka urteak bear dodaz ezkontzeko ta ogeta amar urtedun nazanean il egin bear ba naz, neure semeek laguntza barik eta erdi azita itziko dodaz. Onegaitik neure bizitza luzatu daitela eskatzen dautsat Jaungoikoari.

Astoa adi-adi entzuten egon zan eta eskua sartu eban esaten: "Zuzen dago gizona. Neure aldetik leporatu daustezan urteak lar deritxadaz. Nagoan erara bizitza osoan lanean etenbarik emoteko, erdiakaz egoki deritxat. Beste ogei urteak gizonari damotsadaz".

Txakurrak, eten barik buruagaz baietza diarduela, esan eban: "Neuri be bardin jazoten jat. Oso gaizki bizitza eroateko, ogei urteakaz naiko ta lar daukat. Beste ogeirak gizonarentzat izan daitezala".

Tximiñoiak une baten bere lelokeriak egitea itzi eban eta esan eban: "Neuk be bai gizonari damotsadaz neure urteen erdiak".

Geure Jaungoiko Jaunak une batzuetan gogoan erabilli ondoren esan eban: "Ondo deritxat. Onelan geratu daitela". Eta onelan da. Gizonaren bizitza ogeta amar urteraiño agertuten da. Loti ta tripontzi jajoa da. Ume aroa olgetan eta ikasten emoten dau. Gaztetan jolasari damotso. Eskontzen da. Amesak eta asmoak daukaz. Ludia aldatu ta askatuko dauela uste dau.

Ogeta amarretik berrogeta amarrera astoaren urteak dira: eten barik lan eta lan diardu; "letrak" ordaindu, ikastetxeak ordaindu, soñeko ta oskiak ordaindu. Tresnak apurtuta croan.

Berrogeta amarretik irurogeta amarrera txakurraren urteak dira: gora ta bera ibilli, gauzatxu batzuk gorde ta leku guztietatik botatzen dabe.

Irurogeta amarretik larogeta amarrera tximiñoren urteak dira: lelokeriak egin; billoben barregarria izan; semerik seme ibilli azokatik azokara lez; edo egoitza baten amaitu, abere-baratzen kaiolaren antzekoa dalakoan, abere-baratza-gaz txarto bardinduta.

Oarpena.— Parkatu gaizuz Jauna, guzurrezko ipuintxo onegaitik, baiña ez ete da egia mamiña ta errazoi apur bat daukala?

Malaga inguruko Elizbarrutiko orritxu batetik itzulitu
JON EGILEOR

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

BILBAO

LAGUNTZAILLE

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearako dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillean, baila DEIA Egunkarian be albait lasterren.

Sariak lau izango dira:

1.^a 50.000 pezeta

2.^a 40.000 pezeta.

3.^a 30.000 pezeta.

4.^a 20.000 pezeta.

5.^a 10.000 pezeta.

Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barman izen-ordea ta izena.

Epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKARAZALEAK

ARIMUNEN BERTSOTAN (BAKIO)

Joan dan agorrillaren 12an, ia oitura biurtu jakun lez, bertso afari ederraz gozatuteko aukerea euki dogu gure errian. Oraingoan, Arimune ostatua izan da lekua eta Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak, jakingo dozuenez, biak bizkaitarrak. Esan bearra dago, etorri ziran bertsozale kopurua be inoizkorik andiena izan zala. Alan da ze, esan geinke, bagoazela apurka-apurka Euskera Batzordearenak diran elburuetara parajetuten. Aor daukazuez gau aretako saioko zatitxu batzuk.

Eklipsea dala eta, Igor eklipsea ikusteko gafak saldu gurean etorri da Bakiora eta, olango baten, non ikusten dauan Unai, gaua parrandan igaro ta gero, etxerantz doala. Beraz, bata betaurrekoak saldu gurean eta bestea lo egin gurean.

Gaupasa eginda nator
zuk olan dinozu.
Argiaz problema
itzela daukazu,
onegaz dana baltza
ikusiko dozu

Gaupasa eginda dator
mutiko makarra.
Baina suertatu jatzu
suerte ederra,
eklipse doblea ikusi
aal dauan bakarra.

Zure aotik entzun dodaz
ainbeste itz.
Pixka bat triste eta
pesimista zabiltz,
zugaitik ba mundua
amaituko balitz.

Eklipse ori dogu
benetan egia.
Erdi eklipsatuta
leendik dot begia
ta aitak eklipsatu
bear deust erdia.

Eklipsea dala-ta
gora eta beera.
Paregabea ei da
nik dodan aukera,
bape ikusi barik
joan baietz oera.

Pako Rabanen berbak
ez dodaz entzun, ai!
Nire pastilatxo bat
zuk ez al dozu nai?
Eklipsea ez da ikusten
baina superman bai.

SAN MIGEL EGUNA

Urtero lez, aurtan be, albo errietakook Zumetzagako inguruetan izan gintzazan Mikel Deunaren eguna ospatuten.

Eguraldia be ezin ohea izan zan, eta, goiz-goizetik, ainbat jende urreratu zan baseleiza ondora euren janari eta edariakaz.

Txistu eta danbolina, soinu txikia eta panderoa, gaita jole bat eta osterantzeko musikea ez ziran an falta izan.

Ilundian, bat-bateko "Bizkaiko Dantzari Dantza" bat ikusteko aukerea euki genduan Bakioko dantzari gazte batzuei esker. Baina, osterantzean, ez zan beste urte batzuetako ekitaldirik egin.

Edozelan be, jendearen parte artzeari esker, jai giro ikaragarria egon zan Zumetzagako inguru eder orretan.

Ea datorren urterako, danon alkarrulertzeagaz, guztion onerako ekitaldi batzuk antolatuten doguzan eta, batez be, ain errikoia dan jai orren onerako.

EUSKADIKO PALA LABURREKO TXAPELKETA

Arteragoko ZERean errakuntza nabarmena egin genduan gai au dala eta ez dala.

Txapelketa orretako finalean Erburu II.-ak irabazi eutson Arrosagarairi iru eta bateko emoitzeagaz.

Esan bearra dago be, txapelketa orren berezitasunetarikoa bat amabi tantuko iru partidutxutan olgetea dala eta ez leengo era zaarrean, ogeita amabost tantutara.

Irakurle zintzoak parkatuko deuskulakoan, aor ba zuzenduta.

UNAI BEITIA

"EYES WIDE SHUT" (Filma)

Tom Cruise eta Nicole Kidman senar-emazteak pertsonai nagusitzat dauazan film ori naiko interesgarria da eta ez da alperrik 18 urtetik gorakoentzako izango.

Filma naiko "erotikoa" bada be, ainbat pertsona biluzik agertuten da eta, neskak batez be, oso argumentu interesgarria dago-eta alango "azal faltsuaren" azpian.

MUXIKENE

Jakin badakigu, geienok baintzat, MUXIKENE base-ria non dagoan. Baina ba ete dakigu, orain orren zaar emoten ez dauan etxeak zelango istoria dauan?

Igarriko zeuntsoen MUXIKENERi "Muxika Ene" -tik datorrena, Muxika (Mujika) abizenetik, atan be. Entzun be, entzungo zenduen Muxika sendia sano nabarmen eta ospetsua izan dala, orain gizaldi batzuk, Bizkaiko Jaure-rrian. Jatorriz arabarrak ziran. 1200n urte, inguruan, errotu ziran Bizkaian, ainbat jaubetza eskuratu ebezala, Uribe dalako lurraldean batez be.

Gizaldietan zear, Aaide Nagusietarikoak izan ziran ezkerero, euren arteko guda negargarrietan artu eben esku, eta beste erri batzuen artean, Bakioko Basigoko eleizan lapurretan egin eben. Urteak aurrera joiazala, inguruko beste oso sendi ospetsu bategaz alkartu ziran, Butroi familiagaz, ain zuzen be.

Muxikatarrek ainbat aberastasun eta dirutza andia batu ebezan. Eleiza askotako amarrenak, bearginen eskubideak, ainbat errota eta ainbat ola eukezan euren jaubetzapean. Baita baserri asko be. Areen artean, Bakioko batzuk.

Ciudad Real-eko dukeak (D. Alonso de Idiakes de Butron-Muxika), familia orretakoa berau, ainbat errota eta ola euki ebazan Bakion. Basigoko eleizearen ugaza-ba zan, beraren ondorengoak izan ziran lez.

Muxikatarrek Mungiatik etorri ziran Bakiora. XVI. gizaldirako baegozan ainbat adar Bakion errota. Badakigu, 1.575-1.580 artean. Gonzalo Muxika zalakoa Mari Martin (Martina) Garaikoagaz ezkondu zana. Alargun lotu zan lau semealabagaz eta 1.597an barriro ezkondu zan Mari Saez Azeretxokoagaz. Badirudi, aren ondorengoren batek Elexpuru etxea sortu ebala Bakion, abizena Muxika de Elexpuru artuz. Beluago, Elexpuru abizena bakarrik erabilten asi ziran, Muxikatarrek gitxika-gitxika ezezagunduz. Baina, or dogu MUXIKENE baserria istoria onen lekuko. Bertan biziko zan Muxikatarren ondorengoetarikoren bat. Non eta Bakion.

ANARTZ ORMAZA

ESKOZIAKO LOREA

Abuztuaren 14a, zapatu arrunta Edinburghen. Bertako gazteluaren atarian uda osoan egiten diarduen urteko ekitaldira sartzekotan, Military Tattoo-ren 50. urteurrena ospatzen dabilz. Arratsaldea, egunak gaurkoz naiko esan dau-eta, badoa zero urdin argi-argitik ilunagorantza. Badatoz doinu bandak, atzera eta aurrera, aurrera eta atzera, ibiliaren ibiliz irudiak euren pausuez egiten, musika lagun dabela.

Ekitaldiak gorantz egiten dau, ilunabarra. Zero urdin argitik urdin ilunera. Sartu dira Argyll eta Sutherland-eko goierritarrak. Argiak amatatu egin dabez. Guztiok asi gara begira gaztelu plaza erdira, gaztelu aurrean argi zuziak besterik ez dago. Bat-batean, Lone piper gaitajo-leak berak bakarrik pieza bat joten dau, iluntasunetik urten dau. Eta musikaz argia egin da. An dago, almenen artean. Danok berari begira "Sleep Dearie Sleep" joten dau. Maisutasunez.

Zirrarak joten nau goitik beera eta beetik gora, alde-rik eta aldera. "Saltire Flying" ikurrak, St. Andrews gurutzea aizeak astindua, Leoi gorriagaz batera, asago-raino naroa, lurak eta zeruak bat egiten daben lekurai-no. Mendebalderantza. Abuztuaren 14a. Gaueko artizarr-ra, tokian tokiko Eskoziako lorea, Bakioko larrosa beilegi dantzaria aidean dira.

Abuztuaren 14a, muxika saio au ikusten nagoan ordu beretsuan, azkenengo urteetan ondartzan izan naz. Sal-bearen eguna. Donostiako Salbea entzuten, eta beti itsa-soak eta zeruak bat egiten daben lekuan begiak ipinita. Urtero zirrarra berak jo nau. Iparraldera begira.

Aurtengoan, gauza bera jazo jat atzerrian, baina bertoko eginik, euskal highlandertarra izan naz. Arro, Esko-zian eskoziar sentidu naz, baina "Saltire"-az batera, geu-rea, ikurrina, Edinburgheko zerua zearkatzen ikusi dot. "Sleep Dearie Sleep" -ek gogora ekarri deust. Ano nire erriaz. Baita egun oneetan Edinburgkheko teatro ikuski-zunak egiten diran kalearen ertz baten txistua eta danbo-lina joten dagoan gazteaz be, gure erriko doinuak mun-duko beste puntan bera zabaltzen ikusita.

Mr. Mc Ahala, eskoziar euskalduna, euskaldun esko-ziarra.

Edinburgh-Bakio

"Sustraiak an dituenak"

Nekez uzten du bere sorterria

sustraiak an dituenak.

Nekez uzten du bere lurra zuaitzak

ez bada baldo eta ooletan.

Ez du niriak begia uzten ez

bada erroi edo arrubioen mokoetan.

ALBISTEAK

Nekez uzten du gesalak itsasoa,
ez are arriak basamortua.
Ez du liliak udaberria uzten,
ez elun-ak zuritasuna.
Bere sorterrria nekez uzten du sustraiak an dituenak.
J. Sarrionaindia
"Izuen gordeleku barrena" 25. orr.

BERBALAPIKOA

arrunt = eguneroko, oiko.
atari = atarte, ategi, ataurre.
Military Tattoo = Edinburgh-en udan egiten dan ikuski-
zun militarra.
zuzi = eskuan eroaten dan sudun taketa.
almena = gazteluetan egoten dan babestokia.
zirrara = dartada, biotzikara.
Saltire Flying = Eskoziako ikurrina.
beretsu = ia berbera.
jazo = gertatu, pasatu.
zearkatu = egaz egin, igaro.
baldo = ozpal andia.
nini = betsein.
arrubio = lupu (piztia).
gesal = kresal.
= lora.

GARIKOITZ ETXEBARRIA

BAKIO SURF TALDEA

Bakio Surf Taldea azi eta azi egin da. Orren adibidea, gaur egun surfaz gozatu eta berori bultzatzeko asmoa daukan kolektibo au 170 kidek baino geiagok osotzea. Ekintzarik geienak gazteenei zuzentzea izan daiteke orren arrazoiatariko bat.

Jardueraz beteriko uda onetan be surf eta bobyboard ikastaroei arrera ezin ohea egin jake. Alan da ze, 7 urte-
tik 15 urtera bitarteko 30 neska-mutilek baino geiagok artu dabe parte Bakio Surf Taldeak antolatutako eskole-
tan. Azpimarratzekoa da nesken kopurua mutilena baino andi-
agoa izan dala. Era berean, ikastaroan zear neska-
mutilek surfean jarduteko gitxieneko jakite maila lor-
tzeaz ganera, itsaso, beraren egoera zein prestakuntza
fisikoaren ganeko ezagupenak eskuratu dabez.

Leiaketeki jagokenez, Bizkaiko Kopa, gazteei zuzen-
dutakoa, izan zan leenengoa. Bertan, gure taldekoek oso
zeregin ona bete eben kategoria guztietako leenengo
postuetan lotuz. Ez dogu aaztu bear orrelako leiaketak
Bakio Surf Taldearentzat garrantzi andikoak dirana, gaz-

teenen esku dago-eta gure areatzako surfaren etorkizuna.
Uda onetan be erri mailako txapelketa egin dogu. Orre-
lan, taldeko surflariak gure arteko norgeiagokari ekiten
deutsogu kategoriaren arabera sailkapena ezarriz. Orren
elburua klubaren arteko leiaketetan gure taldeko
ordezkariak nortzuk izango diran zeaztean datza.

Garagarriaren Europako Reef 99 Txapelketaren
txanda izan zan, Europa mailako EPSA ligan puntuak
eskuratu guran. Alan da ze, Bakion Europako surflaririk
onenak batu ziran (Frantzia, Britainia Andia, Portugal,
Italia, Alemania...). Txapelketaren leenengo egunetan
olatu onak izan ziran eta aparteko ikuskizuna ikusteko
aukera euki genduan. Ganera, aroak be lagundu euskun
lez, aretzara jende asko urreratu zan giro bikaina sortuz.
Zoritxarrez, azkenengo egunean leiaketa bertan beera
itzi bear izan genduan, olaturik egon ez zalako.

Txapelketa onen barruan jarduera osagarriak ipini
ziran abian, barbarako, "Miss Reef" eta ool zaarren era-
kusketa. Bakio asteburu orretan jendez ganezka euki gen-
duan goizean eta gauean eta orrexek frogatu egiten deus-
ku zein garrantzitsuak diran orrelako ekitaldiak eta zen-
bat jende erakarten daben mota onetako ekimenek. Gu,
beinik bein, pozarren gagoz leiakideek eurek antolaketa-
ren inguruan egindako balorazinoa oso ona izan zalako,
gazteenak txapelketa ilusino andiz gozatu ebelako eta
Bakiora asteburu orretan jende mordoa etorri zalako.

Jarduera eta ekimen oneek guztiak Bakio Surf Tal-
deak daukan filosofiaren barruan sartzen dira. Orren
jomugak Bakio surf sustatu eta bideratzea gure erri
zein kirol onetan diarduen jendearen alde.

Agur t'ardi

BAKIO SURF TALDEA

TURISMO BULEGOAREN EMOITZAK ETA ERITXIAK

1998an	3.929 bisitari
1998ko udan:	3.538 bisitari
1999an:	7.251 bisitari
1999ko udan:	6.880 bisitari

Aurreko urtearen aldean, bisitarien kopuruak %94
igon dau. Geien eskatutako informazinoa areatza, txako-
lin, bidezidor, kultur eta kirol eskaintza, alojamentu zein
gastronomiaren ingurukoak izan da.

Agiriko utsuneak, ostera, bisitariari arrera egiteko bear
besteko azpiegitararik ez eukitea, batez be alojamentua-
ren ingurukoak, kanpina, nekazalturismoak, ostatxeak,
otelak eta abar.

SEEDORF -EGAZ BERBETAN

Ona emen, bada, turismoak eukitako gorakada orren ganeko zergaitiak eta eritxiak.

Asko izan dira aurton Bakiora etorri edo emendik igaro izan diran atzerritarrak. Aurreko urteetako kopuruaren aldean, bisitarien aurtongo kopurua sano andia izan da. Gorakada au era askotariko faktoreek eragin dabe, berbarako, Guggenheim museoa, ETaren su etenaldia, Euskalerrian turismo arloko beargin eta arduradunen aalegin andia eta eraginkorra...

Orrek guztiorrek gurera bein edo bein etorritako turistak barrian ekarte lortu dau. Atzerriko turistaren artean Espainiako estatutik etorri dira geientsuenak, au da, Madriletik eta Kataluniatik, atan be. Castilla-León, Balentzia eta Andaluziatik etorritakoen kopuruak be gora egin dau.

Osterantzekoen artean, frantziarrak izan dira emetik geien agertu izan diranak.

Orreen ostean, britainiarrak eta alemaniarrek. Azpimarratutekoa da Erbeereak, Italia eta Ameriketatik etorritako bisitarien kopuruaren gorakada.

Gurera etorri direnek gogokoen izan dabez gure errialdearen natur ingurunearen edertasuna, guk egindako abegi ona eta gure gastronomia itzela.

Udarako eratu doguzan ekintzei jagokenez, orreetariko ekintza batzuetan egon dan eskuartze andia aitatu geinke, esate baterako, piragua, surf eta zaldiketa leiaketetan, txangoetan,...

Beste batzuetan, oster, eskuartze txikia izan dogu: soinketan, rappel ikastaroan,...

Gure eritxian, gorago aitatu dogun eskuartze txiki orren zergaitia izan leiteke udako ekintzen ganeko informazinoa erriko biztanle guztiakana ondo eldu ez izatea.

Aurtongo urteko azken iru ilabeteetarako, leenengo eta bein, Port Aventuraarako txangoa eratu dogu, au da, Pilareren inguruko asteburu luzean. Geroago, abenduan, edurtuta egingo diran inguruetariko batera joateko beste txango bat.

Bakioko turismoa sustatzeari jagokenez, Zaragoza, Balladolid, Paris eta Londoneko turismo azoketan ordezkatuta egongo da gure erria.

Urrian, turismo arloari begirako alkartegintzeari buruzko jardunaldiak izango dira.

Zemendian, barriz, leenengo "Bakion asteburua" txantela aurkeztuko dogu, geroagoko baten, bera Espainiako estatuan salgai iminteko.

Argibide oneek guztioneek zeuen gogoko eta zeuentzat interesgarriak izango diralakoa, Turismo Bulegora etorri zaitezela eta zeuen eritxi eta iradokizunak egin deiskuzuezala dei egiten deusuegu.

BAKIOKO TURISMO BULEGOKO BEHARGINAK

Seedorf football jokalaria ospetsua Bakiora etorri jakun, bake hila aurki. ZEReko paparazziak, baina, atzetik ibili jakozan, arik eta urrengo alkarrizketea lortu arte. Izan be, bakearen truke zeozer ordaindu bear izan eban: alkarrizketea bera. Ara, zer esan eutsen.

ZER: Ze inpresino eragin deusue erriak eta beraren jendeak?

SEEDORF: Bakioren berezitasun eta naturearen arteko alkartzea berton oso polita da. Ni urte batzuetan Genoan (Italian) egon naz olgetan eta a be antzekoa da. Danetarik dago. Alde batetik, mendiak, beste alde batetik, aretzea eta, jakina, itsasoa. Benetan, zoragarria! Zoritxarrez, ez dot jendeagaz egoteko modurik euki, ze bearrean etorri naz, baina emengo jendeak alaia eta irigiala dirudi.

ZER: Aurkitu dozu bilatuten zenduan bakea?

SE: Bai, argi dago baietz. Badakizu, erria erri da eta, jakina, bost milioi pertsona batetik eta mila seireun pertsona bestetik ez dauke batak besteagaz antzik be. Benetan, oso baketsu ibili naz.

ZER: Zelan artuten dau 23 urteko mutilak bere inguruan mobiduten dan guztia, au da, dirua, ospea,...

SE: Ori erri txiki bateko bizitzatik uri andi bateko (Madril) bizitzara oitutearen modukoa da. Gorputza eta burua oitutea baino ez da.

ZER: Mundu onek asko aldatu zaitu?

SE: Ezetz uste dot nik.

ZER: Une gatxa igaroten zagoz zure bizitzan. Egoera orrek gizonduen lagundu deus?

SE: Nik neure buruagan sano sinisten dot eta nasainasai egoten naz beti. Uste dot, ganera, neureak baino gorriagoak pasetan dabilzala beste batzuk be.

ZER: Eta azkenez, aolku bat mundu onetan arrakastea lortu gura dauan batentzako.

SE: Ames egin bear da ames orreek lortuten aalegindu. Ezin da inoz norberaren buruagan eukiten dan fedea galdu. Ori da garrantzitsuena, eta ez egon ikusten zelan baten batek ames orreek lapurtuten deusuzan.

ZER: Eskerrik asko!

EGOITZ GARAI

ZER DERITXOZU?

Zer egin dozu jaietako ostea kenduteko?

1.- Esti MARKAIDA

Eguerdiko amabietara arte lo egin, aspirina erdia artu eta prest urrengo jaietarako.

ALBISTEAK

2.- Aitor GARAI

Nai ta gauero ibili izan, ez dot osterik euki izan.

3.- Felix JAUREGIZAR

Ni ez naz jaietan egon, baina esan aal deusut zelan kendu daben nire alabek: lo, lo eta lo geiago.

4.- Ainare MADARIAGA

Lo ta lo eginda, urrengo egunean barrero prest egoteko edaten jarraituteko.

5.- Jabier ALZAGA

Lo ta lo eginda, urrengo egunean bearrean joateko.

6.- Aitor APRAIZ

Bearrean izerditan emonda eta amaiketako gogorra artuta.

ANARTZ-HAITZ-LARRAITZ-ZIORTZA

BAKIOKO JAIK

Jaien osteko leen ZER dala aprobetxatuz, arei buruz kritikak batzuk batu doguz.

Leenengo, garbitasunari jagokonez akats batzuk azpimarratu gure geunkez.

Alde batetik, komun publikorik eza igarri genduan.

Eta ez bakarrik guk, are geiago inguruko etxaldekoek, onek jasan bear izan dabe-eta jendearen lotsabakokeria.

Jendeari bardin deutso beraren bearrizanak kotxe baten atzean egin edo ondoko etxeko lorategian edo baratzean.

Orregaitik, urrengo urterako komun batzuk imintea iradokitzen dogu.

Beste aldetik, sastarrontzien premia igarri dogu.

Jaiak dakarren satar pilaketa kontuan artuta, Zubiaurralden ez genduan bestelako sastarrontzirik aurkitu.

Beste ari bateri jarraituz, azken eguneko jai girok eza azpimarratu gura geunke, batez be Zubiaurralden eta gauez.

Zezensuzkoak ez eban-eta bestelako jendetzarik erakarri.

Dana dala, autortu bear da aurtongo jaiak ez dirala bape txarto egon eta zer edo zer obetu dirala. Gure eritxia kontuan artuko dalakoan, agur.

BAKIOKO GAZTE BATZUK

"NO ME HABLES" - Señor No (Musikea)

Musikaren txokoa izenagaz zabalduen dogun atal barri onetan SEÑOR NO-ren irugarren diskoa, "NO ME HABLES", izango dogu aztergai.

Donostiako Buenevista auzoko talde beterano au, erritmo arinez eta kitarra zorrotzez egindako disko eder-ragaz datorku osterak be, bere oiko ildoari jarraituz, beraz.

Zeozar aitaturtekotan, euren ezoikoak diran instrumentu batzuen erabilpena nabarmenduko geunke.

Olan bada, metal batzuk, (zarata tronpetak eta abar), pianoa, armonika eta neska batzuen korua be.

Abestiei dagokenez, espaineraz dira geienak, ingelesez diran iru izan ezik, eta instrumental pare bat be bada- go. Euren artean, aitatu bearreko diran "1999" deritxon instrumentala (armonika eta guzti) eta "Shaloney" izeneko abestia, bere erritmo gogorra eta burutik kendu ezin izango dozun leloagaz.

Beraz, "rock killer" deritxon estiloko taldeak gustoko dozuezanontzat disko au berenberedia da, "La Perrera"-ren errautsetatik sortu ziranetik urte franko pasa dalako eta, orretara, esperientziadun taldeak diralako.

Amaituteko, zuzenean ikusteko aukerarik badozu, ez egin muzinik talde orreri, zuzenean estatuko ederrenetari-ko bat ikusiko dozulako, ziur!!!

TALDEA: SEÑOR NO

Lpa: NO ME HABLES

ZIGILUA: NO TOMORROW

ETOR DUOANDIKOETXEA

BAKION ERE... CASTELLANO SERRAU!

Jada ez gara aldeanuek, Mungiarak bezain moder- nuen gara.

Orregaitik, gure arteko artuemonak zibilizatuak direz orain.

Olan eta bere, oso abertzaleak izanik, umeak euskal eskolara botaten doguz, txakurrari euskeraz egiten de-utso gu eta geure erriak naiz izkuntzak jasaten daben zapalkuntzaz oso arduratuta gagoz.

Ainbeste denboratan kezkatuta egon ostean, izkuntza- ren arazoa konponduko dauan "formula magikoa" topa- tu dogu, Super Baskoak izaten jarraitu ahal izateko, fatxa, ez-fatxa, español, basko, gorri eta ez gorriok badaukagu alkartuko gaituen izkera: "el castellano serrau del norte". Aurrera bolie eta amamaren bolinetie!

JOSETXU KILKIR

BADAKIZU?

ERATU EGIN DA UDALBILTZA

ZER DA UDALBILTZA?

—Euskal erri osoa leenengoz ordezkaturiko dauan erakunde nazionala. Sortze ekitaldia irailaren 18an egin zan Bilboko Euskalduna Jauregian. Bertan 354 udalerritako 1.778 autetsik artu eben parte, 354 udalerrri ordezkaturiz. Bakioko 7 zinegotzi bertaratu ziran ekitaldi aretara.

—Lurraldetasunaren lekukoa izanda, nazino eraikuntza bultzatzeko tresna izango da Udalbiltza.

— Errialdeen nortasuna errespetaturiz, izakera nazionalari modu bateratuan erantzun gura jako. Euskalerrriaren arazo nagusien diagnostikoa egiteko tresna izango da.

—Lau bizkaitar, lau gipuzkoar, iru nafar, iru arabar eta lapurtar bat izango dira Batzorde Iraunkor barrian.

—Batzorde Iraunkorra, onezkeroan, asi da bearrean; lan taldeak osotzea euki dau zeregin nagusizat.

EUSKEREAREN ALDEKO ALKARTEEN IZENPETZEA

Joan dan udabarrian Bakioko alkarte guztiak batu eta euskera aurrera atarateko konpromisu zeatzak sinatu ebezan "Bakion euskera zeure esku" egitasmoaren aurkezpen ofizialean.

—Oraingoan, ostera, egitasmoa aurrera atarateko txosten bi aurkeztu jakez alkarteetako buru zein euskera arduradunei.

—Batean, astialdia euskeraz bideratzeko prozedura aurkeztu jake eta bestean, alkarteetako barruko funtzionamenduan euskerak aurrera egiteko erispideak ezarri dira. Orren ondorioz, Bakion Euskera Batzorde barria eratuko da. Bertan alkarteetako euskera arduradunak egongo dira ordezkaturik eta batzorde onen zeregina bikotxa izango da: batetik, astialdiko urteko egitaraua adostea, prestatzea eta baloratzea, eta, bestetik, alkarte barruan euskerak aurrera egiteko baldintzak apurka-apurka baina eten barik sortzea.

—Egitasmoa garatzeko txostenen aurkezpena aprobeztatuz, Bakioko etxe guztietara bialduko da taldeek sinatutako konpromisoak azaltzen dauazan biorrikoa, bai eta "Euskaldunen Errolda" martxan ipinteko gutuna be.

—Onen guztiaren elburua, azken baten, bakiotar guztion inplikazioa lortzean datza euskera guztion ardura dala-mezua zabalduz.

—Orretarako, bakiotarrok euskerazko jarduerak eta ekitaldiak antolatu, euskeraren inguruko kontzientzia zabaldu eta gure kultura prestigiatzeko aaleginak egin bearko dozuez, bakiotarrok bakiotar sentitzen jarraitu gura badazue zeuon errian.

ITSAS IBILTOKIKO OBRAK OSTERA BE MARTXAN

—Mugarte Sailak Bakioko Udalarri jakinarazotakoaren arioan, urriaren bigarren amabostaldian ostera be ekingo jake ibiltokiko obrak bein betiko amaitzeko bearrei. Itxaron daigun Mugarte Sailak udalarri agindutakoa betetea.

UDALAK BASERRITARREN MUSEOAREN AURREPROIEKTUA ONETSI DAU AGO BATEZ

—Udalak baserritarren museo a abian ipinteko aurreproiektua onetsi dau. Museo onen elbururik beinenak onakoxeak izan dira: bertoko ezaugarriak eta kultura kontuan arturik, Bakioko eskaintza kulturala eta turistiko obetzea, bai eta geure izakeraren zati garrantzitsua dan bizimodua prestigiatu eta bultzatzea be.

MUNGIA ETA BERMEORA JOATEKO AUTOBUSEN ORDUTEGI BARRIAK

—Bizkaibusek Mungia eta Bermeora joateko autobusen orduak aldatu dauz. Ordutegi barria, bada, onako auxeda:

—Bermeo-Bakio (astegun eta zapatuetan)
07:15etik 19:15era ordu birik bein.

—Bermeo-Bakio (domeketan)
09:15etik 19:15era ordu birik bein.

—Bakio-Bermeo (astegun eta zapatuetan)
06:45etik 18:45era ordu birik bein.

ALBISTEAK

Bakio-Bermeo (domeketan)
08:45etik 18:45era ordu birik bein.

Bakio-Mungia (astegun eta zapatuetan)
07:45etik 19:45era ordu birik bein.

Mungia-Bakio (domeketan)
08:15etik 20:15era ordu birik bein.

Bakio-Mungia (domeketan)
09:45etik 19:45era ordu birik bein.

ERREKA NAGUSIA BIDERATZEKO OBRAK LASTER ASIKO DIRA

Udalak bearrezko tramitazio guztiak egin ostean, Eusko Jaurlaritzak obrak egiteko adjudikazioa besterik ez da falta. Alan da ze, Erreka Nagusia bideratzeko obrak urrengo urteko leenengo ilabeteetan asiko dirala aurreikusita dago.

TXAKOLINAREN INGURUKO GORABEERAK

Daborduko, Bakioko txakolin egileek maatsa batzeari ekin deutsoe. Eurek esandakoaren arabera, aurtengo uzta on-ona izan da udako eguraldi epel eta eguzkitsuari esker. Era berean, aitatu bearra dago 1999ko txakolin ekoizpena ia-ia agorturik dagoala.

APAREJADORE BARRIA BAKION

Xabier Lopez Kerejeta dozue erriko aparejadore barria. Ogeita zortzi urtekoa da, Hernaniarra eta beraren eginkizunak onakoxeak: lizentzien segimendua egin, obren burutzapena ikuskatu, arkitektoari lagundu eta obren ganeko txostenak, ziurtagiriak eta abar egitea. Euskalduna da, beraz, auskeraz egiozue ezelango bildur barik.

OMENALDIA BAKION ALKATE ETA ZINEGOTZI IZANDAKOEI

Aurreko abuztuaren 15ean Bakion alkate eta zinegotzi jardunekoei omenaldia egin jaken. Izan be, aurtun 5

legegintzaldi et 20 urte bete dira udaletan alderdi politiko eta koalizioek auteskunde bidez parte artzeko aukera dauketik. Ori dala eta, azkenengo udal onetara arte korporazioa osotu daben guztiak udaletxera gonbidatuak izan ziran amaiketako baten inguruan berba egiteko. Orren ostean, bertaratutakoei oroigarri bana emon jaken.

"BAKIO BERBARIK BERBA" LIBURUAREN AURKEZPENA

Aurreko garagarriaren 30ean Iñaki Gamindek idatzitako "Bakio barbarik berba" liburuaren aurkezpena izan zan.

Bertara, komunikabideetako kazetariei deitu ez eze, liburuaren barri emoile eta protagonistak izan diran bakiotarrak gonbidatu be egin genduzan udal eta liburuaren egilearen eskerrona artu eien.

Iñaki Gamindek bein eta barriro aldarrikatu eban Bakioko euskeraren balio linguistikoa, eta an batutako guztioi argi eta garbi esan gura izan euskun izkuntz eredurik egokiena geure errian bertan daukagula. Berbaldirituaren ostean, amaiketako eta barriemoleei Ander Ormazak biotz-biotzez opatutako aureskua. Alan da ze, liburu Turismo Bulegoan daborduko salgai daukazue 1.500 pezetan.

Ez galdu gure erriko kultura eta berbakera obeto eza-gutzeko aukera.

Ganera, esan bearra dago lan orrek naiko oiartzun zabala jadetsi dauala inguruko errietan (Jatabe, Mungia, Arrieta, Meñaka eta Zamudion antzeko zeozer egiten asi izan dira) eta euskal komunikabideetan (ETBko "Bertatik Bertara" saiokoek orren inguruko erreportaia egin eben San Migel egunean).

Beraz, Iñakik berak esango leuken lez, "ikasiko aal dogu entzuten eta berton daukaguna baloratzen!" Alan beite.

FUTBOL TALDEKO BARRIAK

Ez dabil lar ondo, ez, Bakio Futbol Taldea. Zemendia- ren 7an Bakion Gatikaren aurka jokaturako partiduan bat eta bapez galdu eban. Momentu onetan taldea 14. postuan dago eta jokaturako lau partiduetarik bakarria irabazi dau. Ez etsi, aurrera egin bear da eta!

ZIDURI

EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA

AUSTRI TA AUSTRI'KO AUTESKUNDEAK

Lagun zar maitea dot aspaldidanik PELLO "BERRITU", ta aspaldi ez ta, berarekin topo egin-berrria naiz Gazteitz'en.

Gauza-jakin-zale aundia da Pello Berritu-ta lenen agurak egin ondoren, bereala galde egin daust, kezkatu, Austri'ko auteskundeetan "Ertzeko Eskumatarrek" ia-ia irabazi dabelako.

—Aizu, On Bixente, esan egidazu, arren, nik aditu al izateko eran. **ESKUMA** zer dan eta zer dan **EZKERRA**.

—Erantzun gaitza daun itauna, Pello, egin daustazun ori.

Erligioaren leiotik begira jartzen ba'gara, erlijiozaleak izango litzakez **ESKUMAKOAK**, eta erlijiorik gabeak eta bereziki erlijioaren etsaiak **EZKERREKOAK**.

—Bai Jauna! Ni gazte nintzala, Bizkai'n, **KARLISTAK** ziran eskumatarrak eta **SOZIALISTAK** ezkertiarak.

—Baiña, Pello, ekonomiaren leiotik begiratu ezker, langillediaren aldekoek osotuko leukete Ezkerra eta kapitalismoaren aldekoek Eskuma.

—Ederto! Era ortan, **LIBERALAK** lirake eskumatarrak eta sindikalistak, adibidez, ezkertiarak.

—Badogu ordea. **PELLO BERRITU**, gizarteari begira jartzeko beste leio bat ere: Politikarena. Leio ortatik ikusita ere, bi zatitan banaturik dakusgu gizartea: Ezkerrekoak batzuk Eskumakoak beste batzuk. Aiek demokraziaren babesle; besteok. diktadurazaleak.

—Orain arteko guzti ori ondo argiturik itzi daustazu, On Bixente. Baiña **ERTZEKO** **ESKUMA** aitatzen danean. zer esan nai izaten da? Austri'n ia-ia **Extrema Deretxa**-edo dalako orrek auteskundeak irabazi dauzala irakurri bait dot izparringietan. "Extrema Deretxa" nola esan daiteke Euskeraz?

—Oiek, Pello, hatean galde bi dira, eta ona bietako bakoitzarentzat neure erantzuna:

"Extremidad", zure esaldi ortan daun zentzua adierazteko, itz ori, Euskeraz, "ERTZA" esaten da. Ta, euskerazko itz ori, adjetibu edo izenondoko bezala erabili gura dogunean, au da, erderazko "extremo" (edo "extrema") euskeratzerakoan, onako era auek artu daikez: "ertzeko", "ertzekoi". "ertzekoitz". "ertzetar", "ertz-zale", "ertz-bera". Nik "ertzeko" eta "ertzekoi" erabili oi dodaz.

Politikaren arloan, "alderdi eskumatar ertzekoia", beren asmoa aurrera ateratzearren edozein indarkeri-mota erabiltzeko gerturik dagozan alderdiei esan oi yake.

—Ai ene! Ta, Austri maitagarri artan, —ni. On Bixente, Austri'n izana bait nauzu— orrelako jende gaizkilleak al dira ia-ia auteskundeak irabazteko zorian aurkitu diran eskubitarrak ertz-zale oiek?

—Ez Pello, ez. Ez dira danak on-elakoak. Europa'ko errialde askotan bezela —adibidez, naiz oraindik askatasunik gabe egon. gure Euskadi txiki ontan bezela— au da Austri'n gertatu danaren eta beste Europa'ko erri oietan ere gertatu daitekenaren zioa.

Austri naiz Laterri txikia izan, ernea, bizkorra ta aberatsa da. Ez da bakarra. Europa'n Laterri txikiak (Luksenburg, Belxika, Olanda, Finlandia, Noruega, Suez, Suiza) dira ba ongien bizi diran Laterriak. Oietakoa litzake gure Euskadi ere, askatasun osoa lortuko ba'leu.

Orregaitik, Austri'n badago non eta zertan lan egiñik ugari, baiña ez dago nork lan egiñik aski. Austri'k ez dau bear dauan aiñako langillerik. Ori dalata, erbestetik etorri yako langilledi ori dana. Ta, aberastasunean aurreruntz jarraitzeko bere lantegietan nork-lan-egiña bearrezkoa ebalako. ondo artuak izan dira langille atzerritar oiek.

Baiña asko ta asko ta asko. geiegi! dira etorri yakoan-eta, larritu egin dira jatorrizko austriarrak. bildurtu, edestia-zear ain ospetsuak izan diran Austri zuri, txukun, dotore. jakintsua, itxuraz eta izakeraz ez ote yaken aldatuko. eta, beldur orrek eraginda, atzerritar oro Austri'tik kanpora jautitzea eskatzen daun Alderdi Ertzekoi Fatxistari eman dautse beren autarkia. Abertzalekerizale fatxisten aldera makurtu dira, ikaturik, Austri'ko abertzaleak ugari.

—Bai gogoan dot zenbat aldiz esan izan dozun zuk, abertzaletasuna gauza on eta donea dan bezela, gauza gaiztoa ta deabrukoia dala abertzalekeria.

—Emen, Euzkadi'n ere. Pello, gaur orrela ez ba'da ere, biar izugarria izango da nork-lan-egiñaren bearra.

—Nik badakit ori zergaitik gertatuko dan. Emen, Euzkadi'n. Europa'ko beste Laterri aietan bezain ongi, eta agian obeki, bizi da jendea-ta, iñork ez dau nekerik artu nai. Ezta txikienik ere. Ondorioz, Laterri aietan ume askorik jaiotzen ez dan lez, emen ere, Euzkadi'n, ez zaigu aietan baiño geiago jaiotzen, aietan baiño gutxiago baizik. Larrujotzen ibiltzea, bai, atsegin zaie gure emakumei, baiña gorroto beltza dautsee erditzeari.

—Kinka gogorra, Pello, Afrika, Asi, Ispaniamerika ta Europa'ko Laterri landen-etatiko langille oiek sortzen dabena, **XXIII** Yon maitagarriak "Munduan Pakea" izeneko "entziklika" edo "eskuz-eskurako-gutunean" onela laburki azaldu euskuna:

ERRIGINTZA

"Gizakume orok badau bizirako bear dauna nun-nai billatzeko eskubidea. Baiñan nor bere erritik beste erri batera irten bear orrek gaitz aundiak sortzen dauz, bai irten bear dabenentzat, bai irtendako oiek artzen dabezan erriarentzat. Gizadiaren eginbearra: norbakoitzarentzat bere errian nola eroso bizi asmatzea da".

Baiñan gure bertsolari batek ederki azaldu ebazan, bera oartzeke, XXIII Yon maitagarriaren gogoeta oiek. 1960'garren urtea. Extremadura'tik-eta jendea pilloka etortzen ari yakun aroa. Dagonillaren 15'ta. Zizurkil'go jaiak. Lazkao Txiki'k onela jarraitzen dautso punttu jartzailleak ipiñitako punttu oni:

"Extremadura dira - Kazerres Badajoz".

"Ez dakit joango diran - majiñat badatoz.

Danok senide gera, - ez nabil gorrotoz:

Etorri ez ba'lira - obe gendun askoz".

—Ederto, On Bixente. Guztiz-gutztiz egia, Lazkao Txiki'k orren dotore abestutako ori. Baiñan badogu Estremadura'tik eta gaiñerako erbesteetatik etorri yakuzan oiei zerbait eskertu bearra. Bikain lan egin dabe Euskalerrian. Emengo langille askok baiño bikainkiago. Gure gaurko aberastasunaren sorketan partaide izan dira. Badabe aberastasan ortatiko atsegintasunean ere partaide izateko eskubidea.

—Bai, Pello Berritu! Ori ez dautsut nik ukatuko. Baiñan langille atzerritar oiek ere gogoan ondo gorde bear daben gauza da, Euzkadi'k aien bearra ba'eban, askoz aundiago zala aiek eben Euzkadi'ren bearra. Langille oiek, beren Aberrian, gosez il-zorian bizi ziran, eta gosez amorratzen etorri ziran beren aberri berri ontara. Euzkadi'k lana baiño geiago ere eman dautse: bizia eman dautse. Eta nolako bizia! Sekulan amestu ere egin ez ebena!

Oartu bitez, beraiek etorri ez ba'ziran, Portugal'dik, Afrika'tik, Errusi'tik, Txina'tik, eta Españameriketatik, millaka ta millaka etorriko zirala beste batzuk. Au da ba, munduko arazorik larriena: mundu zabal guzian, nun-lan-egin gutxi, -oso gitxi-, dala, eta alderantziz mundu zabal guztia nun-lan-egiñik ez daun jendez beterik aurkitzen dala.

Eta ori da ainzuzen Estremaduratik eta beste bee-aldeko lurraldeetatik oneera etorri diranei Euzkadi'k eman dautse-na: NUN-LAN-EGIÑA. Gaur munduan eman daitekean doairik onena, ederrena, baliotsuena, bearrezkoena.

—Ta, On Bixente, onera etorritako oiek jnola ordaindu daikeoe beren Aberri berri oni, dautseen zorra?

—Euskalerriko kulturaz jantzita beren buruak EUSKALDUN BIURTUZ.

LATIEGI'TAR BIXENTE

ARGIA

Argiaren argitan
pozik dago gogo
baratza erdian;
ederraren ederrak
gizona ezilkortzen
bizitza aurrian.

Zeru ortzetik dator
urrea dariola
eguzki oria;
gizona kantuz dabil
bedartza orlegian
pozaren bizia.

BASETXEA

Euzko etxe maitea
mendi egalez dago
urrez orraztua;
ixilik ta maitetsu
eder bera dario
askatasun sua.

Alderdi danetatik
mendi gaillurrak daukaz
bakea zabaltzen;
eta etxe zuria
agurka guztien
eskarra agertzen.

GABON

Itxaropen aundia...
Gaizkatzaillea dator
zerutik lurrera;
galduta egoanak
gaur ikusi bear dau
Jauna bere erara.

Ez dator aundikeriz
biziaren Jaubea
gizonen artera;
maitasun utsa dana
gizon jantzita dator
lurraren gaiñera.

PAULIN

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK
ETA "ZER"

%,,



/ ALDIZKARI ONEN ARDURADUNAK
GABON ZORIONTSUAK ETA
2000n URTE EMONKORRA
OPA DAUTZUE GUZTIOI

SEKSUA (AGURTZANE ORMAZAGAZ BERBETAN)

Azken aldion, komunikabide guztietan egunean-egunean entzuten doguz sexuaren inguruko azaleko eritxi eta iruzkinak.

Ori dala eta, arlo orretako profesional batek egitea oso gai aproposa izan eitekela pentsatu genduan. Alan, Agurtzane Ormazagaz artuemonetan paratu eta gai onen inguruko alkarriketa egin geuntson.

Izan be, Agurtzane Psikologiako lizentziatura eta Sexologiako masterra eta Doktorego programa eginda eukiteaz aparte, "Biko Arloak" sexologia bulegoan egiten dau bear eta Sexologiako Profesionalen Estatuko Alkarteko zuzendaritza batzordeko idazkaria da.

Beraz, guztiz pertsona egokia ainbesteko interesa sortzen dauan gai onen inguruan berba egiteko.

ZER: Sexologia zaitugu eta Bilboko "BIKO ARLOAK" izeneko sexologia bulegoan egiten dozu bear. Ori orrelan izanik, zelan definituko zeunkez sexua eta sexologia?

AGURTZANE: Gaur egunean, sexua eszena erotikoz lotzen dogu. Eszena orreetan, geienetan, gizon bat eta andra bat egoten dira. alkarri zirriki egiten koitora eta, era berean, orgasmora ailegatu arte. Eta orixe sexu jokaera bat baino ez da, edabide eta kulturaren bitartez jendeari ailegatu jakon irudia.

Sexologian, ostera, zientzia dan aldetik, makina bat kontzeptu naastu egiten dira: alde batetik, sexua, ze gizakiak sexudunak gara, au da, sexu batekoak –andak– edo beste koak –gizonak– eta. orrelantxe geratzen gara ainbat prozesuren ondorioz (neurologikoak, genetikoak, ormonalak, biografiakoak, soziologikoak, psikologikoak...).

Beste alde batetik, sexualitatea bera daukagu, au da, zelan bizi dogun andra edo gizona izatea: artuemonak, gorputza, desioak, bildurrak, jarrerak, lotsak... Berraz, sexologia sexua ikertzen dauan zientzia da, andra edo gizona izatea bere osotasunean aztertzen dauana.

ZER: Esaiskuzu mesedez zeintzuk diran geien tratatu bear izaten dozuzan arazoak.

AG: Kontsultan, egia esan, danetarik daukagu eta orren adibidea da gure bezeroak edade guztietakoak izatea. Adinaren arabera zentroan euki dogun pertsona gazteena amar urtekoa izan da eta zaarrena, ostera 85ekoa. Dana dala, bezero geienen edadearen batez bestekoa 40 urtekoa da. Era berean, gauzak aldatu egiten dira kasuen arabera, baina batez he bikote arazoak tratatzen doguz.

Pentsatu bear dogu arazorik geienak artuemonetan agiri dirala. Atan da ze, lantzen doguzan zailtasunek zerikusia dauke eguneroko bizitzagaz: ezin ulertu gure bikotekideari, desio arazoak, komunikazio gaxtasunak, bildurrak, lotsa, gizonezkoen kasuak erekin falta edo isurketa goiztiarra, eta andrazkoen kasuan orgasmora ailegatzeko zailtasunak edo baginismoa (gauza ez izatea bagina barruan ezer sartzeko) eta abar.

Dana dala, aitatu gura dot gure bizitzan mota onetako problemak guztiok daukaguzala momentu baten edo bestean eta bein baino geiagotan.

Orren zergaitiak asko dira: bearbada gure bikotekideagaz ondo ez gagozalako, bildurrak, sexu artuemonak ez diralako geuk gurako geunkezanak, lan zein familia arazoak daukagu-

zalako, buelta-bueltaka dagoalako geure burua eta ezin dogulako momentua gozatu, alboan daukagun pertsona une orretan gustatzen ez jakulako...

Orduan, gorabeera orreek arazotzat artzen doguzanean, sexologoarenera joan bear da. Eta egoera edo arazo orreek, sarritan, bestelako posibilitateak, gauzak... aztertzeko aukera emoten deuskue eta aukerok aprobetxatu bear dira geure burua obeto ezagutzeko eta bizitzeko.

Azken baten, gure bearra bikotekideen arteko artuemonak lantzea da. Batzuetan, artuemonak aberastu eta obetzeko, alkarregaz jarraitzeko edota, beste batzuetan, bikotea banatzen laguntzeko. Azkenengo kasu onetan bitartekaritza lana egiten dogu banaketa ain larria eta latza izan ez daiten. Alan da ze, prozedura guztia bulegoko abokatuaren alkarlanean egiten dogu.

ZER: Bikotekideen arteko artuemonetan, komunikazio falta zenbaterainokoa izaten da arazo?

AG: Leenengo eta bein, esan bear artuemonetan ez komunikatzea ezinezkoa dala, beti zeozer komunikatzen dogu-eta, adibidez, gure lagunagaz berbarik egiten ez dogunean. Orrek zeozer esan gura dau. bearbada ez dogu ezer be esaten, baina isiltasunak be bere arrazoia eta edukinak daukaz.

Askotan, gertatzen da ez garala zer gura dogun edo zer ez, zelan gura dogun edo zelan ez, azaltzeko gauza. Egoera batzuetan ganera, ezetza emon arte, ez dogu beste biderik aztertzen.

Pentsatzen dogu ate bat baino ez daukagula, eta zabaltzen dogunean, edozertarako prest gagoz, baina ixten dogunean, dan-dana zarratu egiten dogu. Beste batzuetan, pentsatzen dogu gure bikotekideak asmatu egin bear dauala zer gura dogun eta zer ez, guk ezer be esan barik, eta askotan berak ez daki, eta ortxe asten dira arazo batzuk.

Besteetan, norberak zeozer azaldukeran, norberaren bizipenetik emoten dau azalpena, baina besteak bere bizipenetik ulertzen dau. Ori dala eta. sarri emen be zailtasunak eta txarto ulertuak topatzen doguz.

Bestalde, sarri-sarri problemaren ganean berba larri arazoak andiagotzen dogu, problema barruan gabilzalako eta kanpotik aditzen ez deusogulako.

Dana dala, bikote bakotxa mundu bat da eta bere bidea jorratu bear dau. Ori kontuan artuta, aberasgarria da norberak jakitea zer gura dauan eta zelan, besteari jakinarazotea, norberaren burutazioak eta sentimenduak azaltzea, aaleginak egitea bestearen tokian paratzeko eta gure gorputza erabiltea beste bereganatzeko edota norberaren bildurrak eta desioak azaltzeko.

Artuemonak landu egin bear dira ortuan egiten dan moduan, erain eta erain fruitu onak atarateko, ortuak berez ez dau-eta askorik emoten, luna ona izan arren.

ZER: Gizarteak gaur egun individualismorako daukan jarrera igarri egiten da sexurako jokabideetan?

AG: Individualismo terminoa bueltaka-bueltaka dabil azkenengo 30 urteetan, eta nik ez dakit zer esan gura dogun berba ori erabilkeran. Sexualitate munduan gauza bat argi

ARAZOAK

dago, Atapuercako gizaki arotik irugarren milurtera arte alkarregaz egoteko grina, desioa eta interesa daukagu, au da, gaur egun leen lez beste pertsona bategaz egoteko grina daukagu eta orrexek batzen gaitu.

Bearbada. gaur egun, teknologiak makina bat aukera emoten deusku gure bakardadetik ez urteteko. Guztiagaz be, giza-kiok jendea ezagutzeko desio andia daukagu eta berori asetzeko jendea bear dogu.

Orduan, naiz eta Internet zein telefonoz artuemonetan paratu, bestaldeko pertsonak beraren buruan badauka gure gorputzaren irudi bat.

Dana dala, inoiz pertsona batzuk teknologia erabilten dabe curen mundutik ez urteteko.

Orrelakoetan, nortasuna eta izakera ez dira kanpora ez eta aberasten be. Orren ondorioz problemak sortzen dira.

ZER: Orduan, zuk esandakoaren arabera. zelan ulertu leiteke Interneten geien bilatzen dan berba "sex" izatea?

AG: Ba. alde batetik komunikabideek "sex" berba edo kontzeptua ezelango elburu zientifiko barik erabilten dabelako, orrek publizitate andia emoten deuselako. Bestetik. leen aiatu dogun lez, gu'e desioa. jakingura eta grina oso andiak diralako.

Azken baten. Internet sexua zer dan ulertzeko beste bide bat izan daiteke. Esaterako. gure aiatita-amamek ez euken Internetik. baina euren desioa eta sexualitateaz jakiteko gogoa gaur egun dagoanaren antzekoa zan.

Alan da ze, gauzak jakiteko beste modu batzuk egoten ziran. berbarako, naturagaz egoan kontaktua, orrelako kontuak lagunartean aitatzen ziran, gaur egun egiten dan modu beratan. Azken baten, gauzen itxura aldatu egin da. baina ez edukina eta jakingura.

ZER: Sexua oraintsu arte tabutzat artua izan da kultura ofizialean. Orrek, zoritxarrez, informazino falta itzela sortu dau. Gazteok jantziago gagoz gai onen inguruan edo topiko jakin batzuen arabera baino ez dogu jokutzen?

AG: Bai. egia da sexualitatearen inguruko gauza guztiak tabuz josita egon dirana, eta batez be, frankismo sasoiaren. Momentu istorikoak neurri andi baten markatu eta zeaztu egiten dauz jarrerak eta jokabideak.

Orain. ostera, bestelako tabu batzuk daukaguz, ze ondino sexualitateaz berba eginkeran. jendeari itaundu egiten deutsozu zer gura dauan eta ez dozu erantzunik jasoten. Orixe igarri egiten da gure bulegoan, emoten doguzan ikastaroetan, egiten deuskuezan deietan...

Mitoak ondino egon badagoz baina bestelakoak dira. Beraz, nire ustez. jakin bear da gauza bakotzak bere momentua daukana, eta gauza guztietan oreka bilatu bear dana, au da, nork bere bidea jorratu bear dauana. Ori bai. gaur egun, jendea prest dago gai onen inguruan gauza geiago itaundu, entzun eta ikasteko.

ZER: Gizarteak onartu egiten dauz geiengoarenak ez diran sexu jarrerak (omosexualitea) edo ondino be igarten da orrek bazterrean eta marginalitatean izteko jokaerarik?

AG: Leenengo eta bein. argitu bear dot omosexualitatea ez dala jarrera bat. ezta egiten dozun aukera bat be. Izateko modu bat besterik ez da, eterosexualen modukoa. Nire eritxiz, apurka-apurka bagoaz aurrera.

Izan he, gizonezko zein andrazkoen omosexualitateari jagokonez, jendeak gero eta zabalago jokutzen dau portaera

orreek ikusita. Dana dala, aldaketa au geienbat gertatu da omosexualen euren mugimendua kaleratzeko egin daben bearraitik.

Ganera, kultura geiago ezagutzen doguz, oiturretan eta zientzia mailan geiago sakondu da. eta azkenik. komunikabideek ezbardinak diran jarrerak, izakerak eta adierazpenak urreratu egin dabez.

Orrek guztiorrek jarrerak leundu eta erreztu dauz, baina ondino gure jokabideak sakondu eta landu bear doguz norberaren eta ganerako guztien sexualitatea obeto ulertzeko, aurretixi barik.

Esaterako, oso errez onartzen da omosexualitatea pape-rean. baina laguna. semea edo alaba danean, orduan gurago izaten da orreek omosexualak ez izatea.

ZER: Gaur egunean ezkuntza erreforma dala eta, ikaste-txeetan aurreikusita dago sexu eziketa emotea. Gure gizartearen inguruetan da sexu eziketa orren eraginik?

AG: Sexu eziketa, naitaez, beti-beti emoten da esaten dogunagaz eta esaten ez dogunagaz, olantxe be sexualitatearen ganeko mezuak zabaltzen doguz eta. Dana dala, argi dago gaur egun gero eta sexu eziketa formala geiago dagoana, ganera LOGSEko agirietan sexu eziketa naitaezko ikasgaitzat jotzen da. Edozelan be, erreformako agirietan agertu arren, gaur egun ez dago bear besteko baliabiderik orrelako eziketa bideratzeko.

Ori dala eta, irakasleek aal dana egiten dabe, baina askotan sexuaren inguruko eskolak izan bearrean, biologiaren ganeko eskolak besterik ez dira. kasu baterako, zer gertatzen dan oholu eta espermatozoideakaz...

Orregaitik. sexua geienetan ez da azaltzen geure izakera osoaren zati modura, au da, ez da aitatzen zeintzuk diran gure sentipenak, bildurrak, modu batera edo bestera jokatzeko zer-gaitiak. eta abar.

Edozelan be, gero eta sentsibilitate andiagoa ikusten dogu gai onen inguruan eta badira onegaz arduratzen diran irakasleak.

Orrelako eziketa emoteko prestakuntza bear da, eta ori guztiori bideratu eta irakasleak prestatzeko baliabide ekonomikoak. Gaur egun, zoritxarrez, ez da orrelakorik egiten.

Beste alde batetik, aiatu bear da orrelako eziketa geienbat etxean dagoala, eta ez dala bearrezkoa obulua nondik datorren edo endometnioa non dagoan jakitea. Ze, seme-alabei artuemonak zelan gauzatu eta eurak zelan sentitzen diran ulertu eta jakitea baino ez jake interesatzen, kasu baterako, zelan sentitzen diran ilekoa daukenean.

Ori dala eta, gurasoek bere buruari itaundu bear deutse euroi zer gertatu jaken orrelakoak sentitu ebezanean, geroago seme-alabak obeto ulertu eta alkarregaz pentsamenduak eta sentimenduak komentatzeko.


Orixe da, ain zuzen. familian jakinarazo bearrekoa, au da, zein gatxa dan danontzat sexuaren ganean berba egitea, zelango ardurak dagozan, zelan ikasi daikegun besteengantik, eta, ulertu eragin gurasoak ortik pasatu dirala, eta, oraindikarren orretan dabilzala.

Izan be, seme-alabentzat oso garrantzitsua da erreferentzia eukitea. Edozein modutan be, sexu eziketarik egokiena bikotekideen arteko artuemonak lantzea da, orixe izango da eta seme-alabek bikotearen ganean artuko daben leenengo eredia eta erreferentzia.


ZIDURI

EUSKALDUN BARRIENTZAT

Marrazki onetan lau zati dagoz bardiñak.
Zeintzuk?



Lz - zZ
euadiiazy



Lotu zenbakiak eta marrazki bat Iortuko dozu.




Marrazki onetan 7 ezbardintasun dagoz.



Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

BBK

Bilbao Bizkaia Kutxa